

Udal informazio aldizkaria | Revista de información municipal

www.busturia.ehbildu.eus  EHBildubusturia  busturia@ehbildu.eus



EAJ-PNVk pentsiodunen bidezko aldarrikapenei bizkarra ematen die

Azken urteotan, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua (MPEH) pentsio baxuenetzako osagarria bermatzea eskatzen die erakundeei, hilero 1.080 euroa iritsi arte. Aurtengo urtarrilean, **herriko pentsiodunen mugimendu horretako kideek Busturiko Udalari proposatu zioten osoko bilkurak testu bat onar zezala EAEko Gobernuak eta Legebiltzarrak pentsio horiek 1.080 euroaino osatzeko.**

EAJ-PNVren erantzuna kontra-mozio alternativo bat aurkeztea izan zen. EAJ-PNV-k pentsioei buruz aurkeztutako KONTRA-mozioa, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua egiten duen bidezko aldarrikapenari bizkarra ematea dela uste dugu EH Bilduk.

Hitzez betetako mozioa, baina eduki praktikorik gabekoa hilaren amaierara iritsi ezin diren milaka pentsiodunentzat. Mozioan "...euska erakundeak pentsio txikiak osatzeko egiten ari diren ahalegina..." aipatzea EAJ-PNV kokatuta dagoen konformismo politikoaren adierazle bat besterik ez da... gaur egun milaka pentsiodun pobrezian bizitzera behartzea eta egungo egoera ontzat ematea da, hilean 600 eurotik beherako pentsioekin.

Eta kontra-mozio hau irakurrita, etorkizunerako, euskal pentsiodun horiei bere bizi-baldintzak hobetzeko EAJ-PNVtik ematen zaien alternatiba zein da?

- Profilean jartzea? Ah! Niri ez begiratu... pentsioak Estatuaren konpetenzia dira!...

- Onartzea euskal instituzioak ez direla euskal pentsiodunek jo behar duten leihatila...?,
- Gero eta erre pikariagoa den "hurrengoan etorri" duela 45 urte Estatutuan onartutako Gizarte Segurantzaren transferentzia iristen denean?

EAJ-PNV da la espalda a las justas demandas del movimiento de pensionistas

El Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria viene reivindicando garantizar un complemento para las pensiones más bajas hasta alcanzar los 1.080 euros mensuales.

El pasado enero, integrantes del movimiento de **pensionistas de la localidad propusieron al Ayuntamiento de Busturia que el pleno aprobara un texto solicitando a Gobierno Vasco complementar dichas pensiones hasta los 1.080 euros.**

La respuesta de EAJ-PNV fue presentar una contra-moción alternativa vacía de contenido práctico para miles de pensionistas que no pueden llegar a fin de mes.

Apelar en la moción al "...esfuerzo que están haciendo las instituciones vascas para complementar las pensiones más bajas..." no es más que un indicador del conformismo político en el que está instalado el PNV: es condenar y dar por buena la situación actual en la que miles de pensionistas viven en la pobreza con pensiones por debajo de los 600 euros mensuales.

¿Qué alternativa se ofrece a las y los pensionistas vascos?: ¿colocarse de perfil porque las pensiones son competencia del Estado? ¿Asumir que no se debe recurrir a las instituciones vascas? ¿Esperar a que llegue la trasferencia de la Seguridad Social aprobada en el Estatuto hace 45 años?

2024ko UDAL AURREKONTUAK

Busturiak gehiago behar eta merezi zuen

Ekimenik gabeko aurrekontuak onartu ditu gobernu taldeak 2024. urterako. Bederatzi urteetako balantzea ezin daiteke rotonda bat izan. Busturiak gehiago merezi zuen eta ez da berandu; egin daiteke. Bainan ambizioa eta gogoa behar da eta EAJrena agortutako proiektu politikoa da

Ohituta gauzka, baina, EAJko taldeak modu honetako aurrekontuak aurkeztena, eguneroko kudeaketara mugatzen direna, baina etorkizuneko erronkei muzin egiten diena. **Pentsatu al du gobernu honek ze Busturi nahi duten bost, hamar urtera begira?**

2023ko aurrekontuak “trantsizioko aurrekontuak” zirela saldu zituten. Urte elektorala izanik eta idazkariaren aldaketa-rekin, nahikoa zutela eguneko asuntoak kudeatzearrekin. Lau urterik bat galduztat eman behar dogu? Bainan 2024koa ezberdina izango zela ere esan zuten, proiektuz josia, erronkei helduko zienza. Alkatearen jardunaldi osoko liberazioa horretarako izengo zela azaldu zituten. Ez genuen sinetsi, eta tamalez, denborak arrazoia eman digu.

Ezin daiteke herri bat kudeatu etxebizitzaz bateko administrari bat bezala. Ostrukarena eginez ez dute, ez, lortuko etorkizunean ditugun desafioak desagarraztea. **Aurrekontuarekin batzen, zigilu gabeko eta data gabeko orri huts bat aurkeztu zituten, orri huts bat.** Bertan etorkizuneko proiektuak jarrita omen zeuden. Noizko? Nola? Galdetu genuen. Erantzunik ez, noski.

Orain bertan, dirurik ez badago, jarri ditzagun martxan aurreproiektuak, egin ditzagun dotazioak aurrekontuetan. Bainan horretarako ambizioa, gogoa izan behar da, eta EAJrena agortutako proiektu politikoa da.

Dirurik ez dagoela da argudio bakkarra, baina dirua alkilerretan xahutzen dogu. Hamaika urte haurreskola eta nagusien lokala alokairuan. Ezin al da

udalaren beste ekipazioaren bat horretara bideratu? Edo analisi bat egin, behintzat...

Noiztik daukagu Hiri Antolamendurako Plan Orokorra onartu gabe?

Aurreko mendekoa da gure HAPO. Horren zaharkitua dago jada balio juridikorik ere ez duela. Berria egin behar dela dio udal gobernuak. Ados! Aspaldi egin beharrekoa, dudarik gabe. Euren nahia lau urte barru, 2028an onartuta izatea da, eta zenbat diru bideratu dute 2024. urtean horretarako? Zero, euro bat bera ere ez! Lau urte azkar pasatzen dira HAPO bat lantzeko, lanean hasi behar da gaurtik, txostenak, ikerketak... ezin dira lanak beti biharko utzi.

Udalak etxebizitzaz bi ditu, hutsik, erabili gabe. Ezin daiteke diru partida bat konponketak egiteko bideratu eta etxe horiei erabilera bat eman? Alokai-ru soziala, larrialdi tarako etxebizitzaz...

Urteak eman ditugu udal gobernuari plan energetikoaren beharra gororazten. Ez bakarrik legeak horrela diolako, baizik eta izugarritzko garrantzia duelako. EAJren erantzuna? Herri txikia garela, hori ez dela gurea moduko herrientzako asuntoak, hobe dela eskualdeko plan energetikoari itxarotea... Bai, horretan trebreak benetan: itxaroten. Bainan eskualdeko plan energetikoa eta gurea gauza ezberdinak dira, herriak berea behar du. Busturia baino herri askoz txikiagoek badute.

Gure eskua luzatzen dogu, beste behin ere, herriaren erronkei aurre egiteko, baina ezin gara isilik gelditu beste urte oso bat galduztat ematen denean.



Orain bertan, dirurik ez badago, jarri ditzagun martxan aurreproiektuak, egin ditzagun dotazioak aurrekontuetan. Eta horretarako, herriaren erronkei aurre egiteko, gure eskua luzatzen dogu, beste behin ere. Bainan ezin gara isilik gelditu beste urte oso bat galduztat ematen denean.

El equipo de gobierno ha aprobado unos presupuestos sin ambición ni iniciativa, limitados a la gestión del día a día e ignorando los retos del futuro. Busturia merece más y no es tarde; se puede si se quiere. Pero para eso hay que tener ambición y ganas, y el del PNV es un proyecto político agotado



PRESUPUESTOS MUNICIPALES 2024

Busturia merece y necesita más

Es costumbre que el equipo del PNV nos presente presupuestos de este tipo, desfasados, limitados a la gestión del día a día e ignorando los retos del futuro. Pero **¿ha pensado este gobierno en lo que quiere que sea Busturia dentro de cinco o diez años?**

Nos vendieron el presupuesto de 2023 como "presupuestos de transición". También dijeron que el 2024 sería diferente, lleno de proyectos, y que para eso el alcalde se liberaría a jornada completa. No lo creímos, y lamentablemente, el tiempo nos dio la razón. ¿Deberíamos considerar cuatro años perdidos?

El único argumento es que no hay dinero, pero lo desperdiciamos en gasto corriente, once años pagando el alquiler de los módulos de la guardería y los locales de la tercera edad. ¿No se pueden usar para esto algunas otras instalaciones del municipio? ¿O hacer un análisis, para al menos plantear las posibilidades?

¿Cuánto tiempo llevamos sin aprobar el Plan General de Ordenación Urbana? Nuestro PGOU se remonta al siglo anterior. Está tan desactualizado que ya ni siquiera tiene valor legal...

Afirma el gobierno municipal que lo pretende aprobar en cuatro años, en

2028. ¿y cuánto dinero han destinado para ello en 2024? ¡Cero! ¡ni tan siquiera un euro!

El municipio dispone de dos viviendas vacías. ¿No se puede destinar algo de dinero para hacer reparaciones y darles un uso a estas casas? Alquiler social, vivienda de emergencia... Hay opciones, pero faltan ganas. También llevamos años recordando al gobierno municipal **la necesidad de un plan energético**. No sólo porque la ley lo dice, sino porque es de enorme importancia. ¿La respuesta del PNV? Que somos un pueblo pequeño, que es mejor esperar a un plan energético comarcal. Pueblos mucho más pequeños que Busturia ya cuentan con el suyo propio. Si tienes voluntad, es obvio que las cosas se pueden hacer.

Ahora mismo, **si la razón es que no hay dinero, preparamos anteproyectos, hagamos asignaciones en los presupuestos. Pero para eso hay que tener ambición, ganas, y el de PNV es un proyecto político agotado.** Extendemos nuestra mano, una vez más, para enfrentar los desafíos del pueblo, pero **no podemos callar cuando otro año se da por perdido.** El saldo de nueve años no puede ser una rotunda. Busturia necesitaba más, merecía más. Pero aún no es demasiado tarde para hacerlo. Se puede si se quiere.

Udal zergen eta tasen eguneratzeak analisi sakonagoa behar du

Urriaren bukaeran izan genuen udal gobernuaren eskutik zerga eta tasen eguneratzearen proposamena. %3ko igoerako proposamena egiten zuten, "inguruko eta antzeko herriek proposatzen zute-lako berbera". Hau izan da EAJk, gai delikatu honetan kontutan izan duten irizpide bakarra, inguruoko zer egin ote duten begiratzea.

Gure iritziz, kontutan izan beharreko irizpide bat bada ere, ezin daiteke, inolaz ere, bakarra izan. Askoz datu eta irizpide gehiago izan beharko genituzke kontuan gure herriko zergen kopurua maratzeko esaterako, langabezia maila, bataz bezteko errenta maila, herritarren adina...

Udaletxe guztiak, gurea bezala egingo bazuten, ondokoari begiratu ea besteek zer egiten duten ikusi, zer egingo genuke orduan? Seriotasun pixka bat behar da, erabakiak zergatik hartzen diren jakin behar da, eta ez inertziagatik, edo beste udalerri batzuk euren errealitate aztertuta horrela egiten dutelako.

Hala ere, guk lankidetzarako eskuia luzaturik daukagula erakusteko asmoz, aurtengo zergen igoe-ra onartu dogu baldintza jakin batekin: datorren urteko zergen eguneratzea analisi sakon baten ondoriozkoa izatea. Lanerako, ondoan izango gaituzte, baina erabakiak inertziatz hartzeko ez.

Berdintasuna irizpideak diru laguntzen plan estrategikoan

Udalak, aho batez onartu du hiru urtez indarrean egongo den diru laguntzen plan estrategikoa. Plan honek, elkarteei banatuko zaizkien diru laguntzen irizpideak markatzent dituelarik. Gai honetan proposatu dugu berdintasuna sustatzen duten proiektu eta elkarreka hobestea, eta halan onartu da.



Kartelak edukiontzietan

Edukiontzien inguruan pilaketak saihesteko zenbait edukiontzitan kartel iraukorra jartzea proposatu dugu udaletxean, herritarrei tamaina handiko ondasunak uzteko data eta telefono-zenbakia gorora ekartzeko.

Carteles en contenedores

Hemos propuesto instalar carteles permanentes en ciertos contenedores para recordar la fecha y teléfono al que avisar en caso de necesitar la recogida de enseres voluminosos, y así evitar su acumulación alrededor de los contenedores.

Itxasbegiko geltokian ur pilaketa

Itxasbegiko geltokian pilatzen da ura eta nolabait garbitu edo drainatzen saiatu beharko litzateke.

Agua acumulada en estación de Itsasbegi

Habría que limpiar o tratar de drenar de alguna manera el agua que se acumula en exceso en la estación de Itsasbegi.




Pilotak Axpeko frontoian

Axpeko frontoian larruzko pilotak erabiltzea debekatzeko kartelak jartzea proposatu dugu bere ormetan egiten duen kalteagatik.

Pelotas en el frontón de Axpe

Hemos propuesto colocar carteles prohibiendo el uso de pelotas de cuero en el frontón de Axpe por el deterioro que ocasionan en sus paredes.



Kartelak eta korrika egiteko beste zinta bat gimnasiorako

Aingerubideko gimnasioa erabiltzeko ordenantza debekatuta dagoen arren, erabiltzaile batzuek musika jartzen dute entzungailurik erabili gabe, eta hori dela eta udaletxean adierazi dugu egokia litzatekeela informazio-kartel bat jartzea, hori egitea debekatuta dagoela gogorazteko, gainera, korrika egiteko zinta jende askok erabiltzen dueñez, beste bat jartza ere proposatu dugu.

Carteles y una nueva cinta andadora en el gimnasio

A pesar de estar prohibido expresamente en la Ordenanza de uso de gimnasio de Aingerubide, hay personas que ponen música sin utilizar auriculares, por eso hemos propuesto que sería procedente colocar un cartel informativo recordando la prohibición de dicha práctica. Además como la cinta está muy solicitada, hemos pedido incorporar una nueva.

Bide esturak Altamiran

Udaletxean proposatu dugu Altamirako sarbidean, Beotegierrotaren ondoan dagoen zubitik igarotzean, bide estu bat eta zubi bat daude, eta handik ezin dira igaro tamaina handiko ibilgailuak. Beraz, gomendagarria dela seinale bat jartza hortik igaro ez daitezten.

Era berean, Apraiz etxearen (Altamira 72) ondoan dagoen oinezkoentzako bidera ibilgailuak askotan sartzen dira. Beraz, gomendagarria da seinale bat jartza ibilgailurik sarez dadin.

Estrechamiento de vías en Altamira

Hemos propuesto en el Ayuntamiento que como en el acceso que en Altamira pasa bajo el puente junto al molino Beotegi, existe un camino estrecho y un puente por el que no caben los vehículos de gran tamaño, sería recomendable poner una señal dando aviso.

Por otro lado en numerosas ocasiones los vehículos acceden al camino peatonal situado junto a la casa Apraiz (Altamira, 72), por lo que sería recomendable señalizar este camino para evitar el acceso de vehículos al mismo.



Jeltzaleen adierazpen kontrajarriak direla eta Guggenheim proiektuari buruzko informazioa eskatu dugu Busturiko udaletxean.

Guggenheim Urdaibai proiektuari buruzko “jeltzaleen kontraesanak” oinarri hartuta, ziklo politikoan “aldaketa beharrezkoa” dela agerian dago.

EAJk Eusko Legebiltzarrera eraman zuen Busturialdea bultzatzeko planean ez zen Guggenheim Museoa” aipatzen, baina udal eta foru hauteskundeetan, Guggenheim Urdaibai zela EAJk Busturialdea biziberritzeko aurkeztu zuen proiektu nagusia, eta errealtitatea da Guggenheim Patronatuak proiektua bi urtez gelditzeko eta horri buruz hausnartzeko erabakia hartu duela.

Idea kontrajarri horiek alderdi jeltzalearen kudeaketa eredu zaharkituaren isla dira, inoiz baino beharrezkoagoa da eraberritze politikoa, gobernatzeko beste modu bat behar dugu.

Busturialdeko EH Bilduko alkate eta zinegotziok EAJri zorroztasun eta seriotsun gehiago eskatzen deutsagu, eta, era berean, elkarritzetarako eta akordioetarako eskua luzatu, eskualde honek gure etorkizun ekonomiko eta soziala markatuko duen proiektu estrategikoak behar ditu, eta hauek eskuadako erakunde, eragile eta jendearekin hitz eginez eta adostuz aurrera atera behar dira.

Argi daukagu Busturialdearen etorkizuna ez dela New Yorken erabakiko, Busturialdeak bere ezaugarriak ditu. Erreserba Biosfera batean bizi gara, eta gure beharrizanak beste batzuk dira. Horiek kontutan izanik eraiki behar dugu etorkizuna.



EH Bilduk Palestinar herriarekiko elkartasuna adierazten du

EH Bilduk berretsi du nazioarteko komunitatea ezin dela besoak gurutzatuta geratu. «75 urteko gatazka da, Nazio Batuen ebazpenak nabermen ez betetzeak markatutako gatazka. Statu quo-a mantentzea ez da aukera bat, eta nazioarteko komunitateak alderdiak animatu behar ditu elkarritzeta eta negoziazio prozesu bat ezar dezaten, bake justu eta iraunkor batir ateratzeko. Bake horrek nahitaez ekarri behar du Palestinaren okupazioa amaitzea eta haren eskubide nazionalak aitorztea, estatu independente eta bideragarria eratzeko eskubidea barne».

EH Bildu manifiesta su solidaridad con el pueblo palestino

Ildo horretan, EH Bilduk salatu du ia 20 urteko blokeoaren ondoren, Gazan bizi diren pertsonak zigor kolektibo baten biktimia izaten ari direla, genozidio baten biktimia. Hori dela eta, beste behin, Gazako Zerreñada helburu duen edozein operazio militar gelditzeko esku tu du.

6 urte, ia 30.000 €

Etxeko animaliak batzeko kontzeptuari dagokion 4.462.92 euroko urteroko ordainketari buruz galdetu dogu.

Gure ustez udal gobernuak gehiago implikatu beharko litzateke kudeaketa horretan, animaliak harrera enpresen instalazioetan urte luzez ahaztuta gera ez daitezen, eta horrek Busturiko herriari dakarkion diru kostu onartezina ekiditeko.

6 años, casi 30.000 €

Hemos preguntado sobre la dotación de 4462.92 euros asignada en los presupuestos anuales para el concepto de recogida de animales domésticos.

Es necesaria una mayor implicación del gobierno en esta gestión, para que los animales no se queden años olvidados en las instalaciones de las empresas de acogida, y porque esto supone un gasto inasumible para el pueblo de Busturia.



Kultur Etxeko erabilera-arauak

Kultur Etxeko erabilera-arau batzuk idatziz jasotzea eta karteletan erraz ikuste-ko moduan jartzeara proposatu dugu

Normas de uso de la Kultur Etxea

Hemos propuesto recoger por escrito unas normas de uso de la Kultur Etxea de Altamira y poner carteles visibles en dicho lugar

Udal Energia-plana hitzartu behar da


Kezkagarria da Udalak ez edukitzea energia-planik. Ez dago norabide jakinik ez aplikaziorako ez energia-plan bat eratzeko jarduketak gauzatzeko. Energia-plan bat hitzartzea beharrezkotzat jotzen dugu.

Es necesario un plan energético

Es preocupante la falta de Plan Energético del Ayuntamiento, no existe un rumbo determinado para la aplicación, ni para llevar a cabo las actuaciones de cara a la elaboración de un plan energético.

Hobetu beharrekoak | Aspectos a mejorar

Bidali zure proposamenak busturia@ehbildu.eus helbidera | Mándanos tus propuestas a busturia@ehbildu.eus



Errege bideko panelak

Panel hauek berritzeko ordua da. Mende laurden iraun dabe.

Paneles de Errege Bide

Es hora de renovar estos paneles que van para un cuarto de siglo.



Berogailu berri bat eskolarako

Altamirako eskolako berogailua aspaldikoa dela eta, proposatu dugu proiektu bat eskatzea eta energía berriztagarriean oinarritutako sistema bat instalaratza.

Nueva calefacción para la escuela

Teniendo en cuenta que la calefacción de la escuela de Altamira es antigua, hemos propuesto en el ayuntamiento solicitar un proyecto de modificación para instalar un sistema basado en energías renovables.

Udal langileen soldataigoera

Gure "autogobernu maila altuez" harro daudenentzat, gogorarazi nahi diegu udal langileen soldatak Madrilen erabakitzent direla, Busturiako Udalaren iritzia alde batera utzita, eta hori onartezina iruditzen zaigu EH Bilduri.

Subida salarial del personal municipal

Para quienes se enorgullen de nuestras "altas cotas de autogobierno", recordarles que los salarios del personal municipal se deciden en Madrid, al margen de la opinión del Ayuntamiento de Busturia, algo que consideramos inaceptable.

Olarretako baranda

Barandilla de Olarreta

Mape inguruko ibilbidea-ren segurtasuna hobetu behar da

Hay que mejorar la seguridad en la zona del camino de Mape.

Aukera galdu bat Busturialdeko gizarte zerbitzuen mankomunitatean adostasun eta lankidetzarako

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean atzo eman zen paktuak atea itxi dio EH Bildu, Herritar Alternatiba, Armendu eta Sukarrieta Kanala Bizirik taldeek proposatutako Batzorde Iraunkor zabalari, eskuadako indar politiko guztiak Mankomunitateko gobernu organoetan ahotsa eta presentzia orekatua izan dezaten.

Paktu hori aukera galdu bat izan da eskuadorean desberdinen arteko adostasun eta lankidetzatik Mankomunitatean kudeaketa parte-hartzaile, gardean eta inklusiboaren aldeko hautua egiteko. Aldiz, akordio honen ondorioz Mankomunitatean gehiengorik ez duen alderdi batek Mankomunitateko lehendakaritzaz gain, Batzorde Iraunkorren gehiengo absolutua izango du.

Hori horrela, otsailean Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko eratze batzarrean egindako bozketen harira, ondoko gai hauek argitu nahi dutugu:

1. Ibarrangeluko Udalaren ordezkaria EAJ-PNVk aurkeztutako hautagaitzan sartu zela aldez aurretik jakinatzari gabe eta ordezkariaren beraren zein Armenduren baimenik gabe.
2. EAJ-PNVren asmo zintzoa aniztasuna bermatzea eta gure udalerrien errealtitate soziala ordezkatzea izan

bazen, gutxienez Batzorde Iraunkorreko bokal postu bi gainontzeko indar politikoei eskaini beharko liekeela, eta horrek ordezkaritza proportzionalagoa ahalbidetuko luukeela.

3. Ildo beretik, EAJ-PNVk konpromisoa hartu beharko luke, gainerako indar politikoekin adostuta, estatutu integratzaile berriak onartzeko, Mankomunitateko gobernu organoetan aniztasuna bermatzeko.

Beste behin agerian geratu da erakundeak eta hauetan egiten dugun lana ulertzeko eredu talka: alderdi interesen arabera jardutea ala desberdinen arteko adostasun eta lankidetzatik akordio zabalen bidez denon artean gobernatzea. Horixe zen hain zuzen EH Bildu, Herritar Alternatiba, Armendu eta Sukarrieta Kanala Bizirik taldeetako ordezkarien proposamena.

EH Bildu, Herritar Alternatiba, Armendu eta Sukarrieta Kanala Bizirik taldeen helburua ongizatearen oinarri ezinbestekoa diren Gizarte Zerbitzuak indartzeko eta hobetzeko lan egitea da, horixe baita herritarrek eskatzen digutena: konfrontazio politikoa alde batera utzi eta pertsona zaurgarrienen alde lan egitea.



Oportunidad perdida para la colaboración en la mancomunidad de servicios sociales

El pacto entre PNV y Gorroño impone los intereses partidistas a la cogobernanza mediante amplios acuerdos desde el consenso y la colaboración entre diferentes, tal y como planteábamos desde EH Bildu, Herritar Alternatiba, Armendu y Sukarrieta Kanala Bizirik. Por ello, en cuanto a las votaciones de la sesión constitutiva de la Mancomunidad, queremos aclarar:

1. Que se incluyó a la representante del ayuntamiento de Ibarrangelu en la candidatura presentada por EAJ-PNV sin conocimiento previo y sin su consentimiento expreso ni el de Armendu.
2. Si la intención de EAJ-PNV fue garantizar la pluralidad y representar la realidad social de nuestros municipios, al menos debería ofrecer dos puestos de vocal de la Junta Permanente al resto de fuerzas políticas.
3. Que EAJ-PNV debería comprometerse a aprobar, desde el consenso con el resto de fuerzas políticas, unos nuevos estatutos integradores y que garanticen la pluralidad.

ehbildu



ARMENDU



Anjel Lekuona Busturian jaio zen, 1913ko martxoaren 1ean, Spainiako Gerran Errepublikaren alde borrokatu zen eta horrek Frantzian erbesteratzera eraman zuen gerra ostean. Han hainbat kontzentrazio esparrutan egon zen. Naziek Frantzia okupatu zutenean, deportatu eta beste hainbat esparrutatik pasa ostean, 1945eko apirilaren 10ean fusilatu zuten Hraistkon, Hirugaren Reicheko kontzentrazio-esparru batean, gaur egungo Txekiar Errepublikarrean.

A photograph of Pello Otxandiano, a man with short dark hair and glasses, wearing a dark blue zip-up jacket over a white t-shirt. He is standing in what appears to be a public space with other people in the background.

Pello Otxandiano Kanpo

EH Bilduren
lehendakarigaia

*Aspiro a representar
el deseo de cambio*

*“Gero eta jende gehiago
dago herri honetan
erregenerazio gosez.
Eta ni, nahi hori, gogo
hori ordezkatzeko prest
naukazue. Herri honen
historia idazten jarraitu
nahi duten, duzuen,
milaka herritarrekin
batera egin nahi dut
bide hau”*

ERABAKI*
STORKIZUNA

ehbildu